



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2013/05/15
Ordua: 19.00 – 19.13
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Bertaratuak:

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn. (BILDU)
PEDRO JOSE JAYO GOROSPE. jn. (BILDU)
NEREA ZARRABEITIA ASUETA. And. (BILDU)
OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn. (EAJ-PNV)

Ez bertaratuak:

PAUL BAÑOS ONAINDIA jn. (BILDU)
ETOR GORROÑO GEREDIAGA. jn. (EAJ-PNV)

Idazkaria: David Álvarez Martínez



Aztergaiak

- 1.- Aurreko Akta irakurri, eta ahala badagokio, onartzea
- 2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea
- 3.- Herriko Tabernaren alokairuaren espedientean agertu diren eskaintzak sailkatzea, hala badagokio
- 4.- EU Garaunzan udal erregimen tasatuko etxebizitzak egiteko idei lehiaketaren ebazpena, hala badagokio
- 5.- BiscayTik proiektuan parte hartzeko agiriak, hala badagokio, onartzea.
- 6.- Izurtzako Udaleko Administrazio Elektronikoa arautzen duen ordenantza, hasiera batean, onartzea.
- 7.-Erreguak eta Galderak

Esan-eginak eta erabakiak

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

1.-Aurreko Akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea. (2013/03/27).

Alkateak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek aktaren testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, akta bozkatu eta bertaratutako kide guztien aho batez onetsi da.

2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.

Idazkari jaunak hitza hartu du eta 34tik 58ra Dekretuen berri laburki eman du.

Zenbakia	Gaia
34	Gastu onarpena
35	Umea izateagatik diru laguntza ematea
36	Gastu onarpena
37	Animali arriskutsuen erregistroan txakurra inskribatzea
38	Padroitik ofizioko baja emateko prozedurari hasiera ematea
39	Lurzoru, lur-gain eta lur-azpia erabiltzeagatik tasaren kitapena
40	Udal frontoia erabiltzeko baimena
41	Kirola suzutzeko emandako dirua laguntzak
42	Segregazio lizentzia ematea
43	San Yurgi taldeari diru laguntza ematea
44	Udal bideak erabiltzeko baimena
45	Udal frontoia erabiltzeko baimena
46	Legez kanpo obra izendatzea
47	Padroitik ofizioko baja
48	Udal bideak erabiltzeko baimena
49	Udal bideak erabiltzeko baimena

50	Obra baimena
51	Gastu onarpena
52	Lurzoru, lur-gain eta lur-azpia erabiltzeagatik tasaren kitapena
53	Lurzoru, lur-gain eta lur-azpia erabiltzeagatik tasaren kitapena
54	Gastu onarpena
55	Jaietako kartel lehiaketa deitzea
56	Fidantza itzulketa
57	Alkateordearen izendapena amaitutzat ematea eta Alkateorde berria izendatzea
58	Geu-Ber elkarteari diru laguntza ematea

Osoko bilkura jakinean ipini da.

3.- Herriko Tabernaren alokairuaren espedientearen agertu diren eskaintzak sailkatzea, hala badagokio

Ikusita 2013ko martxoaren 27an Udalbatzaren ebazpenaren bitartez Herriko Tabernaren alokairuaren kontratua esleitzeko espedientea eta Administrazio Klausula Partikularrak onartu zirela, prozedura irekia erabiltzen.

Ikusita 2013ko maiatzaren 2ko datarekin Kontratazio Mahaia eratu zela eta honek, balorazio aspektuak kontuan hartuz Ana Jesus Cendoia andreari kontratua esleitzeko proposamena egin zuela, eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta honen arabera eta 151 artikulua eta Arlo Publikoko Kontratuentzako testu bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 EDL-aren Bigarren Disposizio Gehigarriaren arabera, Udalbatzak, aho batez, onartzen du:

LEHENENGO. Lizitatzailerek aurkeztutako proposamenak sailkatzea, kontratazio mahaiak eginiko proposamenaren arabera, eta ondoan azalduko den orden beherakorrean:

ZK	Enpresa	Puntuak
1	Ana Jesus Cendoia	76

BIGARRENA. Ana Jesus Cendoia jaunari jakinaraztea eta eskatzea ebazpen hau jakinarazi eta hamar egun balioduneko epean honako hauek aurkeztu behar dituela: Gizarte Segurantzza eta zerga ordainketetan egunean dagoela adierazten duen agiria, baita kontratua betetzeko hitza eman

duen baliabideen jabetza daukatela adierazten duten agiriak, behin betiko bermea osatu, eta errenta ordainduko duen kontu korrontea.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beraren aurka ezingo da errekurtsioa jarri.

4.- EU Garaunzan udal erregimen tasatuko etxebizitzak egiteko idei lehiaketaren ebazpena, hala badagokio.

Ikusita 2012ko urriaren 31ean Udalbatzaren ebazpenaren bitartez babes erregimeneko etxebizitzak egiteko idei lehiaketa espedientea eta Oinarriak eta agiriri teknikoak onartu zirela, prozedura irekia erabiltzen

Ikusita 2013ko maiatzaren 2ko datarekin lehiaketaren epaimahaiak bildu zela eta honek, balorazio aspektuak kontuan hartuz jasotako proiektuen balorazioa eta haien puntuaketa egin zuela eta honen arabera eta Arlo Publikoko Kontratuentzako testu bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 EDL-aren Bigarren Disposizio Gehigarriaren arabera, Udalbatzak, aho batez, onartzen du:

LEHENENGOA. Lizitatzailleek aurkeztutako proposamenak sailkatzea, epaimahaiak eginiko proposamenaren arabera, eta ondoan azalduko den orden beherakorrean:

BUSTI LEHOR	35	35	15	5	90
BASOA	35	35	10	5	85
DOS AL CUBO 2	23	40	15	5	83
LANDARTU	32	25	10	10	77
HANSA 13	25	35	10	5	75

BIGARRENA. – Lehiaketaren oinarrietan aurreikusten diren lehenengo saria eta accesitak ordaintzea, ondorengo eratan:

LELOA	EGILEA	SARIA	ZENBATEKOA
BUSTI LEHOR	D. Juan José Peralta Gracia y D. Andrés Ayesa Pascual	Lehenengo saria	700€
BASOA	*****	accésit	600€
DOS AL CUBO 2	D. Manuel Cerdá Pérez y D ^a Cristina Jodar	accésit	600€

	Pérez		
LANDARTU	*****	accésit	600€
HANSA 13	Lera-García-Otxoantesana S.C.	accésit	600€

Aurreko zenbatekoak ez daramate BEZik eta dagokion atxikipen fiskala ezarriko zaio. Ordaintzeko, lehiatzaileek honako ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera faktura aurkeztu beharko dute jasotako sariari dagokiona eta aurkeztu eta hurrengo 30 eguntan ordainduko zaie.

HIRUGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea.

5.- BiscayTik proiektuan parte hartzeko agiriak, hala badagokio, onartzea.

Idazkari jaunak hitza hartu du eta 2013ko maiatzaren 9ko Ogasun Batzordearen proposamenaren berri eman du.

Ez da beste inolako interbentziorik egon eta bozketa egin ondoren bertaratutako kideek, aho batez, ondorengoa onartu dute:

Lehenengoa.- Izurtzako udalak Biscaytik proiektura atxikitzea.

Bigarrena.- Izurtzako Alkate jaunari esandako atxikimendua burutzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko baimena ematea.

Hirugarrena.- Alkate jaunari Biscaytik Fundaziotik atxikimendu horren exekuzioan etortzen diren edozein agiri sinatzeko baimena ematea.

Laugarrena.- Biscaytik fundazioari erabaki honen berri ematea

6.- Izurtzako Udaleko Administrazio Elektroniko arautzen duen ordenantza, hasiera batean, onartzea.

Idazkari jaunak hitza hartu du eta 2013ko maiatzaren 9ko Ogasun Batzordearen proposamenaren berri eman du.

Ez da beste inolako interbentziorik egon eta bozketa egin ondoren bertaratutako kideek, aho batez, ondorengo onartu dute:

Lehen.- Izurtzako Udaleko Administrazio Elektronikoa arautzen duen ordenantza hasiera batean onartzea, espedientean dagoen testuaren arabera.

Bigarrena: Ordenantzak jendeaurrera agertzea 30 eguneko epean, aldezturik iragarkia jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesatuek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal dituzte Udalbatza Osoaren aurrean. Epe horretan inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, hasierako onarpenera ematen duen erabaki hau behin betiko onetsitzat joko da

7.-Erregrak eta Galderak

Ez dira egon.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, bilkura amaitutzat jotzen da, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut, Alkate jaunaren oniritziarekin.

Idazkaria



O. E.
Alkatea

